

305. alea - 2025eko apirila
Debako herri aldizkaria

Zuhaitza MAK. DEBO euskara
elkartea

Berriketan



BASO BETE ZIENTZIA

Ezagutza zientifikoa denon eskura



ARENA BAR

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan

943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

Jasire & Maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behe - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi
pentsioa

Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



ITZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



*Hondartza ondoan
Urte guzian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

Odontologoa
NORA UNZETABARRENETXEA

nn

943 830 424 - 653 921 712



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN 305

2025eko apirila

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



10 EUSKARALDIA
Dagoeneko Debako eta Itziarko 400 herritarrek eta 50 entitatek eman dute izena Euskaraldian



14 ALBISTEAK
Deba eta Itziar lotzen dituen N-634 errepidea erabat itxita egongo da ekainera arte gutxienez



17 ERREPORTAJEA
Bigarren urtez jarraian, Baso Bete Zientzia jardunaldiak egingo dituzte maiatzean



22 ELKARRIZKETA
'Solsticio de Invierno' liburua hizpide hartuta, Rafael Bravo idazlearekin solasean



26 ALBISTEAK
Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan parte hartuko dute Debako palistek



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus



LAGUNTZAILEAK



DEBAIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatzak Euskara Elkarte
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzak.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Begira. Atal berria *Berriketan*-en

Irudiak horrenbesteko garrantzia duen garai hauetan, atal berria estreinatu dugu *Berriketan* aldizkarian: Begira.

Herriko argazkilarien begiradetan jarri nahi dugu arreta. Hitzek bezainbeste esaten dute irudiek, eta denok daukagu zer esana eta zer ekarria, modu batean zein bestean, komunitatera.

Atal berria elikatzeko kolaboratzaileak beharko ditugu, ordea. Animatuko zinateke Begira atalean parte hartzera? Batu zaitez taldera!

Kalitatezko argazki bat, izenburua eta azalpen testu labur bat. Horra hor parte hartzeko eskatuko zaizun bakarra. Parte hartu nahi baduzu, deitu 632 04 33 22 telefonora edo idatzi berriketan@berriketan.eus posta elektronikora.

Erredakzioa

Itziarko errepidea

Idatzi hau sinatzen dugun herritarrok gure haserrearen eta egonezinaren berri eman nahi dugu. Aste batzuk igaro dira Deba eta Itziar arteko errepidea moztu zutenetik eta jakitun gara gure eguneroko bizitzan sor daitezkeen buruhausteez eta gorabeheretz. Baina ez dugu inondik inora ulertzen Debako Udalak zein Itziarko Auzo Udalak orain gutxira arte informazioaren berri emateko bando ofizialik ez atera izana eta oraindik ere batzar irekirik ez egin izana. Ez dakigu egoera hau noiz arte bizi beharko dugun, kalean denetarik entzuten dugu, baina informazio ofizialik ez dugu. Gure seme-alabak garraio publikoan mugitzen dira egunero ikastetxera, eskolaz kanpoko ekintzetara..., baina ordutegiak ez dira moldatu eta ez da zerbitzua indartu, horrek dakarren guztia erekin. Autobusak 20 minutuko atzerapenarekin iristen dira egunero eta ezin izaten dira garai iritsi trenea hartzera. Egoera hau denok sufritzen dugu; erosketetara, medikura, Correosera, banketxera... joateko.

Eta zer esan egunero San Rokeko aldapan gertatzen denaz. Herritar asko oinez jaisten gara Debara, herritarrrak zein Santiagoko bidea egiten dabiltzan lagun ugari. Hasiera batean, kotxez San Rokeetik igotzeko aukera baino ez ziguten eman, baina jakina da hau ez dela inondik inora errespetatu. Itziarrera igotzerakoan behin eta berriz aurkitu ditugu poligonotik behera datozen kotxeak, furgonetak, atzerriko turistak... Zorionez, orain arte eguraldi lehorra izan dugu. Eurria egiten duenean, segurtasuna bermatuko al dute? Galdera asko eta erantzunik ez. Esan bezala, herritar ugari oinez jaisten gara Debara eta bertatik igarotzen den kotxe kopuru altuari ibilgailuen abiadura handia gehitu behar zaio, horrek sortzen duen arriskuarekin.

Egoera ikusita, idatziak bideratu ditugu Lurraldebusera, aldundira eta udaletxera, baina oraindik ez dugu inolako informaziorik jaso. Jakitun gara egoera ez dela erraza, baina honen aurrean informazioa eta irtenbideak eskatzen ditugu, hau guztia ahalik eta erosoan eraman ahal izateko.

Yon Zubizarreta, Ainara Etxarte, Ekaitz Solabarrieta, Nerea Salegui, Jeannet Zubia eta beste hainbat herritar



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maorpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)





Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



NAHIA EGUSKIZAGA

irakakaskuntzakodokumentuak@eskola.eus

Fratoren marrazkian irakasleak poster bat seinalatzen die umeei eta zera esaten die: "Gaur zuhaitza behetik gora nolakoa den azalduko dizuet: sustraiak, enborra...". Badirudi ez dela detaile txiki batez ohartu: baso eder bat du posterraren atzean. Marrazki honek urte batzuk ditu, 1984koa da. Badut sentsazioa orain ere detaile batzuk ahaztuta ditugula irakaskuntzan, dena lotuta eduki behar horrekin inork irakurriko ez dituen dokumentuak egin eta egin gabiltzala, xehe erlazionatu nahian —nor bait (ordezkoa, gurasoak, ikuskaria, Pedrosa) galdetzeraz badator, otsoa azaltzen bada...— zein jardueraren bidez landu ditugun curriculumaren arabera umeei garatu behar dituzten konpetentziak, eta nola ebaluatu hauek guztiak. Laster paperak betetzen egoteagatik irabaziko dugu soldata. Ez nuke nahi. Irakasle on lana umeari garapenean bidelagun izatea da.

Eta umeei ikasten dute, kasik bakarrik, inguruarekin harremanean, hain berezkoa duten jakin-minarekin, jolasten. Nola erraztu, nola atera distira bide horri? Denbora gehiago pasa beharko genuke haiei begira, jabetzeko zenbat gauza ari diren ikasten *ARI* direnean, eta pentsatu nola eman bultzada, nola aberastu, irakasle on artean ikuspegiak partekatu, egiten dugunaren inguruan hausnartu...

Idatz dezaket ikas-egoera edo unitate didaktiko bat (deitu nahi duzun bezala), baina paperak ezin du bildu egunerokoan eskola izan daitekeen inguru iradokitzaile horretan gertatzen ari den era guztietako jakintza leherketa hori (oroitu Gardner). Eta, gainera, ez dut hori dena idazteko denborarik.

**"Laster paperak
betetzen egoteagatik
irabaziko dugu
soldata. Ez nuke
nahi. Irakasle on
umeari garapenean
bidelagun izatea da"**

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - beheia | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
ekidenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 943 53 95 20- E-mail: ieraeneda@gmail.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



euskara
elkartea



641 46 52 42 (Kolore Anitz)
koloreanitz@gmail.com



www.berriketan.eus/udalekuak

TXANDAK

Lehenengo txanda

Ekainak 30 - Uztailak 11

HH 5 (2019) eta LH 1-2 (2018-2017)

Bigarren txanda

Uztailak 14 - Uztailak 24

LH 3-4-5-6 (2016-2015-2014-2013)

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

09:30-13:00

*Uztailak 24: 09:30-16:30

*Uztailak 25: Jai

IZEN-EMATEA

Internet bidez (maiatzaren 11ra arte):

www.berriketan.eus/udalekuak

Izen-emate presentziala:

Zuhaitza Euskara Elkartea

(Ibar kalea 12, behea)

Apirilak 30, maiatzak 5 eta maiatzak 7

(10:00-12:00 / 18:00-20:00)

PREZIOA

Arrunta 50€

Familia ugaria 45€

BGDS, DSBE edo GLL
jasotzen duenak 9€

ORDAINKETA

Kutxabank

ES29 2095 4408 5410 61240171

*Kontzeptuan umearen
izen-abizenak jarri.

OHARRAK

Plaza mugatuak izango dira. Plaza
kopurua baino eskaera gehiago
jasoz gero, zozketa egingo da eta
lehentasuna Deba-Itziarren
eskolatutako umeek izango dute.



GORKA AGIRREZABALA

Ez onartu ezezagunen gozokirik!

Txikitan sarri entzuten genuen goiko esaldi hori eta orain, nagusi garenean, ahaztu egin zaigula dirudi. Mugikorra hartzen dugun bakoitzean, "Cookieak onartzen dituzu?" galdera irakurri eta onartu egiten ditugu, cookieek (galletak dira ingelesez) dakartzaten "arriskuei" kasu gutxi eginez.

Garrantzitsua da mozerrotuta datozkigun aldaketei izena jartzea; kasu honetan, gozoki hauek dira egunero mugikorrean ongi etorria egiten digutenak. Irakurri al duzu inoiz zer diren? Noizbait begiratu dut eta beldurtzekoa da ikustea zenbat enpresari ematen diegun baimena gure datuak, gure kontsumoak, gure bilaketen historiala... ikusteko. Ezezagunei gure jokabideen berri ematen diegu, beren interesen mesedetan.

Aldi berean, ordea, buzoia ez ditugu eskutitzez edo katalogoz beteta ikusi nahi. Zergatik ez birziklatu daitekeen produktu bat onartu, erabat anonimo egiten gaituen propaganda begiratu, eguneroko postariari atea ireki, herriko inprenta txikiari eta publizitate agentziei lana eman...? Agian, birziklatzea cookieak onartzea baino nekezagoa da, baina nik nahiago dut eskutitz, aldizkari edota paskin batez gozatu.

Digitalizazioaren garai honetan, 'ekologiko' hitza erabiliko dute papera alde batera uzteko, baina ez al da ba akaso kutsagarriagoa petrolio edo koltana (mugikorren osagaien jatorrizko minerala)? Horiek lortzeko ematen den jendearen esplotazioa ahaztu gabe...

Nire datu pertsonalak nahiago ditut gutun azal batean seguru bidaiatzen, sarean libre eta edozeinen esku baino.

"Agian, birziklatzea cookieak onartzea baino nekezagoa da, baina nik nahiago dut eskutitz, aldizkari edota paskin batez gozatu"



ekoizpena,
dietetika,
belarrenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



1910

Ostiral Santuko prozesioa

Ez dakigu nor den argazki honen egilea, baina jakina da 1910. urteko Ostiral Santuko prozesioan aterata dagoela. Garai hartan kultura herrikoian oso errotuta zeuden ospakizun erlijioso horietara joatea ia derrigorrezkoa izan zen 1960ko hamarkadaren amaierara arte.

Irudian prozesioko pauso batzuk ikus ditzakegu: lehenik eta behin, Maria Magdalena, eta, haren atzetik, Jesus olibondoen baratzean, "Cañaras", "Pillaras", San Joan ebanjelista eta Dolorosa.

Tradizioari eutsiz, irudi bakoitza gremio ezberdinetako kideek eramaten zuten. Tabernariak, adibidez, San Joan ebanjelista zeramaten, baserritarrek olibondoaren baratzea, gizon gazte ezkongabeek "Cañaras", gazte ezkonduak "Pillaras", itsasgizonek edo itsasoarekin lotura zutenek Dolorosa, arotzek Kristo gurutziltzatua...

Prozesioan "Marixak" izenez ezagutzen ziren neska gazte batzuek ere parte hartzen zuten. Kristoren pasioaren ikurrekin irteten ziren, eta Maria Magdalenari eta Jesusi Kalbariora iristen lagundu zieten emakume santuak irudikatzen zituzten.

Alex Turrillas Aranzeta



NAGORE DORRONSORO

Debarren ahotsak liburutegiaz

Alderdiaren aurretik eta gero ere, debarrok altxa dugu ahotsa. Komunitateagatik altxatuak oroimen-ganbarako esker onaren amaraunean ditut: ametsak garatzeko Gaztetxea gorputz-arima osatu zuten gazteak; zezen-plazan, pankartaz, errealitate absolutuen paretan jaiak ulertzeko beste modu batzuei leihoa ireki ziotenak...

Altxa Burua-koek, burua goian, pantailen kolonizazioaz ohartarazi gaituzte, eta distirakitsu-gortutako gurasoak umeen babesa berreskuratzerara gonbidatu.

Liburutegia Denontzat-ekoak, amak berriro, irtenbideaz datoz: pantailen estimulatutako buru hiperaktiboek ipuinetako hizki-irudietan lur-hartzea, irudimenaren botoiaz mila aukeren mundura hegaldatzea... "Zenbat ideia neskak!", beste herrietako udal arduradunak inbidiatan...

Liburuzainak ere ("Ezti" bezain goxo, laguntzeko prest beti) entzun beharreko arrazoiak ditu gaiak, ziur. Baina umeen eskubideez ari garela aldean arrazoiak al da joko-zelaia?

Amnesia jakota, umeak ia deabruzko zaizkigu. Ez naiz inor gogoz kontra bereizte zale, izan azalaren koloreagatik edo mamiaren adinagatik. Artifiziala naturalduz goaz, orde, eta hor dira hotelak, tabernak... umei betoa jarritz: kapitalaren logika vs logika emozionala. Ereku publikoan ere, ustelkeria eta utzikeriaren eskutik gure ahotsa Aliceren labirintoan galduta, egun, ahotsa aldarri da beti. Ziurra bizitzan aldaketa soilik izaki, borondate argia eskatu nahi diot udalari behar diren arau-zehazte, herri-galdeketa, edo probekin, nola edo hala, erantzun egokia emateko debarron ahotsari.

"Artifiziala naturalduz goaz, orde, eta hor dira hotelak, tabernak... umei betoa jarritz: kapitalaren logika vs logika emozionala"



400 herritarrek eman dute jada izena Euskaraldian

Euskaraldian parte hartzeko izen-ematea bide onetik doala jakinarazi du herri batzordeak: martxoaren 15ean zabaldu zuten laugarren edizioan izena emateko epea eta dagoeneko Debako eta Itziarko 400 herritarrek eta 50 entitatek bat egin dute hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoarekin. Herrikide gehiago batzea dute orain erronka. Euskaraldia maiatzaren 15ean hasiko den arren, aurrez abiatu dituzte ekimena girotzeko jarduerak.



Babes zabalarekin hasiko du bidea Euskaraldiak. Euskararen erabilera sustatzeko ariketa soziala hasi baino bi hilabete lehenago ireki zuten norbanakoez izena emateko epea eta behin-behineko datuak jakinarazi dituzte dagoeneko: Deban eta Itziarren 400 herritarrek parte hartuko dute egitasmoan. Horietatik 319k *ahobizi* rola hartu dute eta 81 dira *belarriprest* ariko direnak.

Herritarrek ez ezik, entitateek ere badute zeresana eta zeregina ariketa kolektiboan eta, gaur-gaurkoz, herriko 50 eragilek, elkartek, enpresak edo dendak erakutsi dute Euskaraldian parte hartzeko konpromisoa.

Ekimenarekin bat egingo dutenen zerrenda luzatu egingo da. Izan ere, Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era izango da eta ordura arte (bezperara arte) egongo da izena emateko aukera. Internet bidez egin daiteke (*euskaraldia.eus* atarian) eta herriko batzordeak mahaia jarriko du Foruen Plazan hilaren 10ean (11:00etan). Bertan, izena eman dutenek (udalerrri gisa Deba hautatuz) txapa identifikagarria jaso ahal izango dute.

Euskaraldia sustatzeko bat egin dute tokiko erakundeek eta eragileek. Akuilu lana egin dute hilabeteotan eta antolatu dituzten jardueren berri eman dute. Ekintza gehienak maiatzaren 15etik 25era izango dira, baina aurretik ere badira zenbait hitzordu.



EUSKARALDIA

Debako herri batzordea

HURRENGO HITZORDUAK:

MAIATZAK 10 (LARUNBATA)

EUSKARALDIKO AZOKA

11:00 Plaza Zaharra / Foruen Plaza / Simon Berasaluze plaza.

*Herriko 25 bat eragilek eta elkartek parte hartuko dute ekimenean.

MAIATZAK 15 (OSTEGUNA)

HASIERA EKITALDIA

19:00 Foruen Plaza.

MAIATZAK 17 (LARUNBATA)

KUADRILLEN ARTEKO JOLASEN FINALA

13:00 Foruen Plaza.

MAIATZAK 18 (IGANDEA)

ZINEMA EUSKARAZ

19:00 'Azken erromantikoak'. Kultur Elkarte.

MAIATZAK 19 (ASTELEHENA)

MOBILIZAZIOA

11:00 Pentsiodunen mugimendua Euskaraldiarekin. Foruen Plaza.

MAIATZAK 20 (ASTEARTEA)

IRRINTZI IKASTAROA

18:30 Luzaro ikastetxea. Doan. Bi orduko saioa izango da. Aldez aurretik eman beharko da izena. Bidali mezu bat 688 87 24 89 telefono zenbakira.

MAIATZAK 21 (ASTEAZKENA)

MAHAI-INGURUA

18:00 'Debako euskararen historia soziala' (Nekane Goikoetxea). Kultur Elkarte.

MAIATZAK 22 (OSTEGUNA)

EUSKOPOTEOA

20:00 Musika, jolasak... Kalez kale.

MAIATZAK 23 (OSTIRALA)

IPUIN KONTAKETA

17:00 Plaza Zaharra.

BARRETEGIA

20:00 Umorezko bakarrizketak (Nerea Aizpurua, Manex Astigarraga, Joseba Escudero, Mitxel Martinez eta Julia Ron). Sarrera: 3€. Kultur Elkarte.

MAIATZAK 24 (LARUNBATA)

ITURRIAN KORUA

12:00 Kalez kale.

MAIATZAK 25 (IGANDEA)

PALA TXAPELKETA MISTOA

10:00 Aldats pilotalekua. Aurrez eman behar da izena. Bidali mezu bat 685 75 50 74 telefono zenbakira.

Kontxi Bastervetxea

"**Eskertuko** nuke jendeak niri euskaraz egitea. **Garrantzitsua** da"

"Beti hitz egin izan dut gaztelaniaz. Nire semeekin bakarrik erabili nuen euskara, 4 urte bete zituzten arte, eta orain bilobekin erabiltzen dut", azaldu du Kontxiak.

Jubilatu zenean hasi zen euskara ikasten eta lau urte egin ditu euskaltegian. "Niretzat garrantzitsua da euskaraz aritzea eta eskertuko nuke jendeak niri euskaraz hitz egitea, ohitura hartzeko. *Belarriprest* izango naiz".



Paul Garcia

"Euskara **gure izaeraren ezinbesteko ezaugarria** da, baita altxor bat ere"

Gaztetan etxean gaztelera hitz egiten zuten arren, euskalduna da Paul eta gehienetan euskaraz aritzen da familian, lanean eta lagun artean. Ez beti, ordea.

Aurten hori izango da, hain justu, bere erronka: euskararen erabilera handitzea. *Ahobizi* izango da. "Munduaren etengabeko globalizazio honetan, euskara gure izaeraren ezinbesteko ezaugarria da, baita altxor bat ere. Oso tresna lagungarria eta zentzuzkoa iruditzen zaidalako parte hartuko dut Euskaraldian".



Iratik Majoral

"Gazteak gara Euskal Herriaren etorkizuna eta **ezinbestekoa** da geu ere gure hizkuntzaren erabilerarekin **konprometitzea**"

Iratik lehen aldiz parte hartuko du Euskaraldian. Egunerokoan euskaraz bizi da, baina "inguruan gaztelera jotzeko joera handia" egonik, "euskarari heltzeko ahalegin handia" egin behar izaten duela aitortu du. Horra hor aurtengo ariketan izango duen erronka eta helburua. *Ahobizi* rolean aritzea erabaki du.

"Argi daukat oso garrantzitsua dela euskara mantentzeko eta indartzeko lan egitea", azpimarratu du.



Juanma Iparraizirre

"Lagun ona dut euskara, normalean **ondo konpontzen gara"**

Juanma *belarriprest* ariko da. Bere ustez, bere belau-naldiari lapurtu nahi izan zioten hizkuntza da euskara. Inoiz ez du euskaraz hitz egin. Ez zioten sekula irakatsi eta, gaztea zenean, zigortuta zegoen euskaraz aritzea.

Erretiroa hartu zuenean hasi zen euskara ikasten eta pozik dagoela dio. "Lagun ona dut euskara. Eztabaidak izaten ditugu, baina normalean ondo konpontzen gara".



Olatz Arriola

"Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera ematen digu"

Olatz irakaslea da eta nagusiki euskaraz bizi da, baina inguruan gero eta gaztelania gehiago entzuten duela iruditzen zaio. Aurten *ahobizi* rolean aritzea erabaki du.

"Badira euskara jakinda ere niri gaztelaniaz hitz egiten didatenak eta horiekin elkarrizketa elebidunak mantentzeak esfortzu handia eskatzen dit. *Ahobizi* rola ahalegin hori arinduko didala uste dut eta gogor helduko diot aurtengo erronkari", azpimarratu du.



Fernando Urrain

"Euskara gehiagotan eta erraztasunez erabiltzea gustatuko litzaidake eta hori izango da nire erronka. Nahiago dut *belarriprest* izan eta ariketa ondo egin"

Euskaraz jakin arren, lagun artean eta etxean gazte-lerarako joera izan du beti. Ez, ordea, lanean: "Eremu horretan desberdina da. Tronpeta eskolak euskaraz ematen ditut eta banda zuzentzen dudanean ere gero eta gehiago erabiltzen dut euskara", aitortu du.

Aurten *belarriprest* izango da, "*ahobizi* izateak dakarrena %100ean betetzea oso zaila" iruditzen zaiolako. "Nahiago dut *belarriprest* izan eta ariketa ondo egin".



Gutxienez ekainera arte egongo da itxita Deba eta Itziar arteko N-634 errepidea



Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du urtarrean Irulearen begiratokiaren parean izandako lur-jausiak kaltetu zuen ezpondak oraindik ere "ezegonkortasun konplexu eta aktibo larria" izaten jarraitzen duela. Hortaz, segurtasun kontuengatik itxita mantenduko dute errepidea, ekainera arte gutxienez. Egoera ikusita, herritarren joan-etorriak errazteko neurriak adostu dituzte Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak.



Deba eta Itziar arteko errepidea itxita dago martxoaren 30az geroztik eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu bezala, gutxienez ekainera arte itxaron beharko da eremua behar bezala egonkorta eta segurtasunez ireki ahal izateko.

Egoerak Deba eta Itziar arteko lotura "nabarmen zaildu" duela ikusirik, herritarren joan-etorriak arintzeko eta errazteko neurriak hartzea erabaki dute Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak. Hain zuzen ere, San Rokeko bidearen erabilpena ibilgailu baimenduen eta ez baimenduen artean bereiztea adostu dute.

Horiek horrela, baimendutako ibilgailuek -bertakoen txartela dutenek, zirkulazio-zerga udalerrian ordaindu dutenek edo udaltzain-

goak baimendutakoek- San Rokeetik egin dezakete joan-etorria. "Mendata institututik Olloki baserrira doan errepidea bi noranzkoetan dago zabalik. Bidea, noski, behar bezala seinaleztatua egongo da", adierazi dute.

Hala, Debatik Itziarrera joateko, San Rokeko bidea hartu eta Doniene Berriko bidegurutza iristean N-634 errepidera jaitsi beharra dago. Itziartik Debara itzultzeko, berriz, N-634 errepidetik egin behar da bidaia, eta, ondoren, Atxili baserriko bidea hartu behar da Ollokiko bidegurutza arte.

Bestalde, baimendu gabeko ibilgailuek AP-8 autobidetik edo Lasturko GI-3210 errepidetik egin behar dituzte joan-etorriak.

Era berean, adierazi dute N-634

errepidea irekita dagoela Itziartik gasolindegira.

Udazkenara arte

Eremua egonkortzeko lanean ari diren arren, azken asteotan errepidera iristeko arriskua izan dezaketen lur mugimendu berriak antzeman ditzutela azaldu du aldundiak.

Aurreikuspenen arabera, ekainaren erdialdetik aurrera txandakako pasabidea izango duen erreibati ireki ahal izango dute, "betiere luraren baldintzek eta meteorologiak ahalbidetzen badute". Nolanahi ere, Felix Urkola Bide Azpiegituretako diputatuaren esanetan, bidea ezingo da erabat ireki "udazkena baino lehen". Larrialdiko jarduketa indartuz, errepidea konpontzeko lanek 1,8 milioi euroko aurrekontua izango dute.



Apirilaren 10ean egindako osoko bilkuran onartu zuten mozioa. ITZIARKO AUZO UDALA

LPSari egindako azken aldaketen aurkako mozioa onartu du auzo udalak

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) behin-behineko dokumentuan egindako azken aldaketek ez dute baztertzen Andutz-Txobillar eta Arbil-Lizarreta-Arriola guneeetan parke eolikoak ezartzeko aukera. Aldaketa horiek "arriku potentzial" gisa ulertuta, auzo udaleko kideek irmo adierazi dute beren desadostasuna.

Itziarko Auzo Udalak ohiko osoko bilkura egin zuen apirilaren 10ean eta bertan aho batez onartu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Energia Berriztagarrien LPSaren behin-behineko dokumentuaren aurkako mozioa. Adostutako adierazpen hori Eusko Jaurlaritzan aurkeztea izango da hurrengo urratsa.

Behin betiko onespena jaso ez badu ere, badirudi laster onartuko dela LPSa. Plan horrek EAEn energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak —eolikoak eta fotovoltaiakoak bere-

Dokumentua "modu irregularrean" moldatu dutela salatu dute, "aldez aurretik kontsultarik egin gabe eta informazio publikorik eman gabe"

ziki — non jar daitezkeen eta non ez argituko du, irizpide batzuen arabera.

Aldaketak izan dira, ordea, 2023ko hastapeneko onarpen dokumentuaren planoetan eta horrek kezka eragin die auzo udaleko kideei, "halako azpiegiturak eraikitzeke lurraldeak duen ustezko ahalmen edo harrera-gaitasunaren graduaketa nabarmen aldatu eta igo baitute".

Gai honek "garrantzia handia" duela azpimarratu dute, eskala ertaineko nahiz handiko instalazio eolikoak zonalde berri askotara hedatzea ahalbidetzen duelako. "Itziarren, Andutz-Txobillar gunea ahalmen baxuko eremua izatetik ahalmen ertaineko gunea izatera pasa da eta Arbil-Lizarreta-Arriola gunea, berriz, ahalmen oso baxukoa izatetik ertainekoa izatera. Bi gune horiek kolorez aldatu dira planoetan eta horrek eskala ertaineko instalazio eolikoak (bost aerosorgailu baino gutxiagokoak edota 30 megawatteko potentzia baino gutxiago dutenak) bertan kokatzea ahalbidetu dezake".

"Arriku potentzial" horren aurrean, behin-behineko dokumentuan Jaurlaritzak egin dituen aldaketen aurka daudela adierazi dute: "Ez gaude planaren aldaketa puntual baten aurrean, lurraldeko eremu zabalei eragiten dien aldaketa multzo handi baten aurrean baizik. Arrazoi horregatik aurkeztu dugu mozioa", zehaztu dute auzo udaletik.

"Justifikaziorik gabe"

Jaurlaritzak aldaketak "modu irregularrean eta justifikaziorik gabe" egin dituela salatu dute. "Gai honek lurralde eta ingurumen arloan ondorio garrantzitsuak dituen arren, LPSaren azken aldaketak aldez aurretik kontsultarik egin gabe eta informazio publikorik eman gabe egin dituzte. Ez gaude ados prozedurarekin eta gardentasunaren aurkako erasoa dela uste dugu".



LANBIDE
HEZIKETA
FORMACION
PROFESIONAL



Unai Portero

Debarra. 22 urte.

Mantentze-lan Elektromekanikoa

Ikaslea

HEZIKETA ZIKLOAK

Ikasleen bizipenak

Nor da Unai?

Ni Unai naiz, Debakoa naiz eta 22 urte ditut. Mantentze-lan Elektromekanikoa ari naiz ikasten IMHn, eta nire afizioak futboleko jokatzeko eta lagunekin denbora pasatzeko dira.

Zergatik aukeratu zenuen Mantentze-lan Elektromekanikoa ikastea?

Banuen interesa mundu hau nolakoa den jakiteko. Bestalde, familiako batek sektore honetan lan egiten du eta IMHra joatea aukera ona zela esan zidan.

Zergatik IMHn?

Debatik Elgoibarrera treina dagoelako eta gertuen dagoena delako.

Azalduko al zeniguke zer den IMHn ikasten pasatako garaitik gehien gustatu zaizuna?

Alde batetik, lagun berriak egin ditut. Beste alde

batetik, lanera joateko lan oinarriak ikasteko aukera eman dit.

Eta orain, otsailetik ekainera bitartean, praktikan nago lan mundurako bidea egiten joateko.

Ze asmo duzu datorren urterako?

IMHn bertan Mekatronika Industrialeko goi mailako heziketa zikloa egiteko asmoa daukat.

Erdi mailako zikloa bertan eginda izateak ere asko lagunduko dit goi mailako zikloa egiteko.

Zer esango zenioke zurea moduko zikloa ikasteko zailtasun dagoen pertsona bati?

Aukera bat emateko eta probatzeko, ez duela ezer galtzekorik, gauza berri asko ikasiko dituela eta azkenean mundu hau gustatuko zaiola.

Ziklo hau ikastera animatuko zenuke norbait?

Nire egoeran daudenei gomendatuko nieke, ikasketa praktikoak egitea gustuko dutenei eta ikasten jarraitzeko gogoia dutenei.

ATE IREKIAK

Maiatzak 14

Izen ematea



IMH LHII Elgoibar
www.imh.eus
943 74 82 65
zikloak@imh.eus

Gertuko zientzialarien jakintza eta jarduna erdigunera, bigarrenenez



Aurtengo jardunaldietan parte hartuko duten hizlarietako batzuk eta antolakuntza taldeko zenbait kide Kultur Elkartean.



Bigarren urtez jarraian, Baso Bete Zientzia jardunaldiak egingo dira maiatzean, Kultur Elkartearen ekimenez. Debako, Itziarko eta inguruotako herritarrek zientzia munduan egiten duten lana ezagutarazteko helburuz, publiko orokorrari zuzendutako hitzaldi sorta antolatu dute. Bederatzi solasaldi labur izango dira aukeran eta pintxo-potea eskainiko dute guztietan.

Zientzia herritarrena ere bada, baina batzuetan kosta egiten da ikusaraztea ez dagoela gizartetik bereizita. Eta gakoa dibulgazioan dagoela uste dute, hain zuzen, Baso Bete Zientzia egitasmoaren arduradunek. Helburu horrekin antolatu dituzte aurtene jardunaldiak, "zientzia kultura orokorraren parte dela erakusteko beharrezkoak" direla iritzita.

Herritarrek zientzia munduan egiten duten lana ezagutarazteko eta Deban eta Itziarren ere zientziarekiko interesa pizteko asmotan prestatu dute egitaraua. Bederatzi hitzaldi izango dira maiatzean (lau egunetan banatuta); horietatik zazpi Debako Kultur Elkartean egingo dira, eta beste biak Itziarko Burugorri gainean. Hitzordu bakoitzean, zientzialariak izango dira protagonista eta ezagun duten lan edo ikasketa arloarekin lotutako kontuez ariko dira, euskaraz. Zabala da gaien zerrenda: energia berriztagarrien kudeaketa, material biodegradagarriak, osasuna, telekomunikazioak eta zibersegurtasuna, ingeniariak industria, nautika eta itsas garraioa, matematika...

Antolatzaileek azaldu dute solasaldi laburrak izango direla, hogei bat minutukoak. Egun bakoitzean bi edo hiru hizlari izango dira eta, hitzaldi bakoitzaren ondoren, galderak egiteko eta eztabaidarako tarte eskainiko dute. Saioen artean pintxo-potea izango da aukeran, "giroa erlaxatzeko".

Guztionez

Zientzia publiko orori gerturatzeko xedea du Baso Bete Zientziak eta, hortaz, herritar guztiei hitzaldietara bertaratzeko deia egin diete, solasaldiak entretengarriak eta denok ulertzeko modukoak izango direla azpimarratuz.

Maiatzak 8, osteguna | 19:00 Debako Kultur Elkarte

> ANE FEIJOO
Energiaren Biltegitratze eta
Kudeaketan doktoregaia

Ane Feijoo (Deba, 1998) Mondragon Unibertsitateko Energiaren Ingeniaritzan graduatua da eta masterra du Energia eta Potentzia Elektronikan. Gradu-bukaerako lana Ikerlanen egin zuen eta 2022ko irailaz geroztik bertan ari da doktoretza-tesia egiten, Energiaren Biltegitratze eta Kudeaketa alorrean. Azken hilabeteetan nazioarteko egonaldia egiten aritu da Portoko (Portugal) INESC TEC ikerketa zentroan.

> 'Etorkizuneko flexibilitate merkatuak: kontsumitzaileon parte hartze aktiboa trantsizio energetikoan'

Europak 2050. urterako ezarri dituen helburu klimatikoek energia iturri berriztagarrien integrazio handia sustatuko dute. Hala ere, gaur egungo sare elektrikoa ez dago erronka honi aurre egiteko prest eta azken urteotan flexibilitatea aurkezten dute irtenbide bezala.

Baina nola bihur gaitezke irtenbidearen parte? Hausnartu dezagun kontsumitzaileon parte hartze aktiboaz trantsizio energetikoan.



> IBON ARANBERRI
Kimikan doktorea

Ibon Aranberri (Eibar, 1974) 1998an amaitu zituen Kimika ikasketak EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Ondoren, masterra egin zuen Berlingo Unibertsitatean eta handik Ingalaterrara jo zuen, doktoretza Hull-eko Unibertsitatean egitera. Euskal Herrira itzuli zenean, bi urteko doktoretza ondokoa egin zuen Donostiako Polymat Institutuan eta ordutik 20 bat urte daramatza plastiko berrien garapenean murgilduta. Donostiako CIDE-TEC Zentro Teknologikoko ikerlaria da.

> 'Eta oilo lumekin material biodegradagarriak garatuko bagenitu?'

Plastiko gehienak petrolioaren deribatua dira eta horrek baliabideak agortzea ekar lezake.

Alternatiba berriztagarriak behar dira, baina, zoritxarrez, horiek erronka handiak dituzte oraindik ere: kostua, eskalagarritasuna eta propietate mekanikoak, besteak beste.

Etorkizunean, material berrien eta ekonomia zirkularraren arteko oreka bilatzea funtsezkoa izango da petrolioarekiko menpekotasuna gutxitzeko.

Maiatzak 14, asteazkena | 19:00 Debako Kultur Elkarte

> AMAIA GUTIERREZ
Debabarreneko ESiko Lehen
Arretako fisioterapeuta

Amaia Gutierrez (Urretxu, 1978) 2000. urtean amaitu zituen Fisioterapia ikasketak Reusen, eta, urtebete beranduago, Kirolean espezializatu zen Gimbernat unibertsitatean egindako graduondokoarekin. Bere ibilbidean arlo ezberdinetan aritu da lanean eta formakuntza jasotzen. Besteak beste, minaren pedagogian eta mugimenduan oinarritutako prestakuntzan sakondu du. Lehen arretako fisioterapeuta gisa dihardu gaur egun Eibarko Ospitalean.

> 'Minari buruz'

"Mina burmuinean dago: jada ez daukazu gorputz atal batean sumatu dezakezu". 2021. urteko Medikuntzako Nobel saria jaso zuen Ardem Patapoutian biologoaren esaldia da.

Bera bezalako ikertzaileei eta azken urteotan neurozientziei eman zaien garrantziari esker, minari buruzko gauza asko argitu ahal izan dira.

Lehen arretako fisioterapeutek ere ezagutza horietan oinarritutako aurrerapenak aplikatzen dituzte gaur egun, talde tratamenduetan jolasari eta mugimenduari tarte handia emanez. Horren guztiaren inguruko azalpenak emango ditu hitzaldian.

Maiatzak 14, asteazkena | 19:00 **Debako Kultur Elkartea**

> **JON EGAÑA**
Telekomunikazio ingeniaria

Zortzi urte baino gehiagoko esperientzia du Jon Egaña (Deba, 1992) Telekomunikazio ingeniariak zibersegurtasunaren alorrean; bost urtetik gora egin zituen ikertzaile lanetan Vicomtech zentroan eta bi urte baino gehiago daramatza S21sec enpresako lerkuntza eta Garapen sailean lanean. Zibersegurtasuna ingurune ezberdinetan aplikatuz, taldeburu izan da EAEk, Espainiako Estatuak eta Europar Batasunak finantzatutako hainbat proiektutan.

> **'Geopolitika eta zibersegurtasuna'**

Zein da geopolitikaren eta zibersegurtasunaren arteko harremana? Zein da zibersegurtasunaren eragina gure eguneroko bizitzan? Ba al dago gailu edo zerbitzu zibersegururik? Nola ekiditen dira ziber erasoak enpresetan?

Aipatutako galderak eta zibersegurtasunarekin lotutako beste hainbat zalantza argitzen saiatuko da hitzaldian. Halaber, norbanakoei ziber erasoak saihesteko gomendioak ere emango dizkie.

Maiatzak 23, ostirala | 19:00 **Itziarko Burugorri gaina**

> **JOSUNE ZUBICARAY**
Medikuntzan doktorea

Josune Zubicaray (Itziar, 1988) Medikuntzan lizentziatua da EHU, 2012an. Hematologian espezializatzeke urteak Donostiako Ospitalean egin zituen eta, orduz geroztik, Madrilgo Niño Jesus Ospitalean dihardu lanean. Bertan, nagusiki hezur-muineko gaixotasun ezberdinentzat terapia aurreratuak garatzea izan da bere azken urteotako jardun kliniko eta zientifikoaren ardatza. Ikerketa ildo horri tiraka argitaratu zuen doktoretza-tesia 2022an, Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren eskutik.

> **'Terapia edo medikamentu aurreratuak deritzaienak laborategitik pertsonetara'**

Terapia aurreratuaren nondik norakoak azalduko ditu solasaldian. Bereziki terapia genikoan jarriko du arreta, baina beste terapia zelularren bat ere aurkeztuko du hitzaldira bertaratzen direnen aurrean: besteak beste, zer diren, nola sortzen diren, zertan erabili edo aplikatu daitezkeen, edota odoleko gaixotasun ezberdinen etorkizuna nola alda dezaketen azalduko du. Medikamentu horiek nori eskaintzen dizkioten eta zer berezitasun eta konplikazio dituzten ere argituko du.



> **IRANTZU ALBERDI**
Merkataritzako Nabigazioaren makineriako buru

EHUn Itsasketako Gradua egin ondoren, Irantzu Alberdik (Itziar, 1996) Itsasketa Masterra egin zuen, bere prestakuntza osatzeko helburuz. 2018an makineriako praktikak burutu zituen eta ondorengo urteetan gas naturalaren itsas garraioan murgilduta ibili da, ardura ezberdineko lanpostuetan, munduan barrena (Hego Amerika, Afrika, Qatar, Australia, Txina, Japonia, India...). Azken urteotan gas natural likidotua AEBetatik Europara garraiatzen duten ontzietan aritu da nagusiki lanean.

> **'Texastik Europako etxeetara. Gas naturalaren itsas garraioan dihardutenei begirada txiki bat'**

Itsasontzietako lanpostuen estrukturari eta postu bakoitzaren zereginei eta ardurei buruzko azalpen bat emango du hitzaldian. Itsasontziko eguneroko bizitzaz ere ariko da, mugimenduan dagoen lantoki batek lanari nola eragiten dion aipatuz, besteak beste. Halaber, bere ibilbide profesionalen gertutik ezagutu dituen itsasontzi motez eta beren kargaren berezitasunez hitz egingo duela aurreratu du. Izan ere, gure etxeetara iristen den gas naturala likido egoeran garraiatzen baita itsasontziz.

Maiatzak 29, osteguna | 19:00 **Debako Kultur Elkartea**

> **JULEN MENDIKUTE**
Ingeniaritza industrialean
doktorea

Ingeniaritza industrialean doktorea da Julen Mendikute (Deba, 1994). Mondragon Unibertsitatean egin zuen doktoretza, karbono-zuntzeko osagaien fabrikazioan. 2022. urteaz geroztik, ikertzaile lanetan dihardu IDEKO zentro teknologikoan. Bertan, adimen artifizialeko algoritmoak garatzen ditu, ikuskapen ez-suntsitzailea (NDT) teknologietan aplikatu ahal izateko.

> **'Akatsik gabeko fabrikazioa: posible al da?'**

Kultur Elkartean egingo duen aurkezpenean fabrikazio aurreratuan ikuskapen ez-suntsitzaileko (NDT) teknologien garrantziaz ariko da, akatsik gabeko fabrikazioa lortzeko helburuarekin. Horrez gain, adimen artifizialeko algoritmo aurreratuak NDT teknologia hurrengo mailara eramaten ari direla azalduko du. *Posible al da akatsik gabeko fabrikazioa? Materialeak dituzten barneko defektuak garaiz detektatzen hondakina gutxitzeko* izenburupean egingo du, hain zuzen, solasaldia.



> **MAIALEN BERISTAIN**
Matematikan doktoregaia

Maialen Beristainek (Deba, 2000) Matematika ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, Matematika Hutsari dagokion aipamenarekin. Ondoren, Padovako (Italia) unibertsitatean egin zuen masterra eta azken lauhilekoan Bilbora itzuli zen, beka baten bitartez master amaierako lana osatzera; praktika egonaldia BCAM zentroan egin zuen. Gaur egun, doktoretza egiten ari da eta ikerkuntza eta irakasuntza uztartzen ditu uneotan, EHUn irakasle baitabil.

> **'Matematika bizitza optimizatzekeo'**

Noizbait pentsatu al duzu nola heltzen diren Internet bidez egindako erosketak zure etxera? Edo nola diseinatzen diren hirietako autobusen ibilbideak? Zer zerikusi dute ataza horiek kutsadurarekin? Eta matematikarekin?

Bada, aipatutako galdera horiei guztiei erantzunak ematen eta beste zalantza batzuk argitzen ahaleginduko da hitzaldian. Bide batez, matematikak guztion eguneroko bizitzan duen paperaz eta garrantziaz jardungo du.



> **KEPA ZAMACOLA**
Biologoa

Kepa Zamacola (Eibar, 1991) Biologian graduatu zen 2014an EHUn, eta, jarraian, Farmakologia. Medikamenduen Garapena, Balioespena eta Erabilera Arrazionala masterra egin zuen. Ikasketak eta prestakuntza osatzeko, Biologia eta Geologiako irakasleen prestakuntza-masterra ere egin zuen gero, besteak beste. Ondorengo urteetan, Bilboko CicBiogunen zein Donostiako CicBiomagunen gartatu zuen ibilbide profesionala, minbiziaren inguruko ikerkuntza taldeetan. Gaur egun, Donostiako Viralg-en enpresan dihardu lanean, terapia genikoen arloan murgilduta.

> **'Medikuntza pertsonalizatura gerturatuz: terapia zelularra eta genikoa gizarteari hurbildu nahian'**

Terapia zelularra eta terapia genikoa terapia aurreratuak dira; gaixotasunak beren jatorrian tratatu edo sendatzeko helburua dute eta, horretarako, geneetan eta zeluletan oinarritutako doitasun-terapiak garatzen ari dira.

Bi terapia horiek iraultza ekarri dute medikuntzara, tratamendu pertsonalizatuak eskainiz eta lehen tratamendu eraginkorrik ez zuten gaixotasunentzat ere aukera berriak zabalduz. Dena den, eraginkortasuna hainbat faktorek baldintzatzen dute. Ikerketatik fase klinikoetara egiten den ibilbideaz ariko da hitzaldian.

Maiatzaren 11n Senperen egingo den Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute



Beste behin ere, Senperera joan-eto-ria egiteko autobusa antolatu dute herriko hainbat gurasok eta Zuhatzza Euskara Elkartek elkarlanean.

Maiatzaren 11n egingo da 4.2. Herri Urrats. Autobusa 08:45ean abiatuko da Debatik, estalitako pasealekutik, eta ordu-laurden beranduago jasoko du jendea Itziarko biribilgunean. Itzulera ordua, berriz, 19:30ean izango da, Senperen. Txartelak salgai daude jadanik 15 euroan, Ieraenean eta Bikain jatetxean.

Elgarrekin lelopean egingo dute Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jaialdia, "egungo jendarte indibidualistari aurre eginez, elgarrekin egitearen eta elgarrekin egotearen aldeko apustua egiten dugulako". Aurten bildutako dirua Arberoako ikastola eta Senpereko kolegioa laguntzeko izango dela jakinarazi dute Seaskako ordezkariak.

Dupla taldeak sortu du Herri Urratseko aurtengo kanta (Neomak taldeak egin zuen iazkoa).

DBHko ikasleen literatur lehiaketaren sariak maiatzaren 6an banatuko dituzte



Maiatzaren 6an egingo dute Menda-ta ikastetxeak eta Zuhatzza elkarteak antolatutako euskarazko literatur lehiaketaren sariak banatzeko ekitaldia. Goizean izango da, institutu-tuan bertan.

Deialdian 230 bat ikaslek parte hartu dute. Bulego musika taldeko Tomas Lizarazu abeslariak hautatu du sariketarako gaia eta ikasleek "Ze ederra zaren duda denak galdu eta dantzan hasten zarenean" esaldia gaitzat hartuta sortu behar izan dituzte idazlanak (prosan zein poesian). Itziar Arana, Amets Carrillo, Igor Larrañaga eta Alazne Txurruka aritu dira epaile lanetan. Ekitaldian ezagutaraziko dira sarituak.



Errigoraren produktuak maiatzean iritsiko dira Debara eta Itziarrera

Pozik agertu dira Errigorako kideak Eskutik Eskura kanpainaren balorazioa egin dutenean. Izan ere, azaldu dutenez, Euskal Herriko zazpi lurraldeetan egin du gora eskariak: guztira 145.500 litro olio eta 30.700 produktu sorta baino gehiago banatuko dituzte, herritarrek egindako 10.700 eskaerei erantzunez.

Deban 51 herritarrek eskatu dituzte produktuak, horien truke 10.000

eurotik gorako ekarpena eginez Errigorari. Elikagaiak Aldats pilotalekuan jaso ahal izango dituzte maiatzaren 7an (11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara).

Itziarren, aldiz, zortzi herritarrek eskatu dituzte produktuak. Kalebarreneko lekalean egingo dute banaketa maiatzaren 9an (16:00etatik 20:00etara) eta maiatzaren 10ean (10:00etatik 13:00etara).

“Liburuan bildutako poema gehienak esperientziatik, memoriatik eta intentzioz sortutakoak dira”

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA • Idazlea



Rafael Bravo Arrizabalagak (Arroa-Zestoa, 1950) lau urte zeramatzan lan berririk argitaratu gabe eta udaberriarekin batera ikusi du argia *Solsticio de invierno* (Caligrama, 2025) bere laugarren poesia liburuak. Apirilaren 26an aurkeztu zuen argitalpena, Kultur Elkartearen. Hitzordua aitzakia hartuta, poema bilduma berriaren nondik norakoez eta etorkizuneko asmoez galdezka joan zaio Berriketan.

Literaturazale amorratua izan da betidanik Bravo. Gazte-gaztetatik izan du idazteko zaletasuna. Ipuinak eta antzerkiak idazten hasi zen eta genero horietan hainbat lehiaketa irabazi zituen. Gerora, poesian murgildu zen; testu ezberdinak idatzi ditu aldizkarietan zein antologietan eta urteotan hainbatetan saritu dute. Aitortu duenez, literatura du pasio. Azken liburuaz gain, badu bestelako proiekturik ere dagoeneko esku artean: "Niretzat poesia eguneroko lana da, etengabea, exigjentea".


Poesia liburu berri bat kaleratu berri duzu. Nondik nora sortu zitzaizun liburu idazteko ideia?

Laugarren liburu da. Beylebooks etxeak plazaratutako *Cuerpo y alba* izan zen lehenengoa eta, ondoren, Bermingham argitaletxearekin kaleratu nituen *Tempestad de luz* eta *La sombra del aire*; azken bi lan horiek Pasaia eta Iparragirre lehiaketetan saritu zituzten, hurrenez hurren. Orain aurkeztu berri dudan *Solsticio de invierno*, berriz, Caligrama etxearekin argitaratu dut. Guztiek erantzuten diote nire beharrian bati; poesiaren bitartez kezka existentzialetan eta arazo sozialetan sakondu eta erantzunak aurkitzeko daukadan behar horri, hain zuzen.



Nolakoa izan da sorkuntza prozesua? Aurreko hiru liburuekin alderatuta, adibidez, desberdina izan al da idazteko modua?

Solsticio de invierno sortzeko prozesua luzea izan da. Aurretik idatzitako lanekin alderatuta, desberdina izan da, adinak eta urteek egilearengan izan duten eragina nabarmena baita. Baina, hala ere, esango nuke au-



rrekoen ildo beretik joan dela liburu berria sortzeko prozesua; oraingo honetan ere antzematen da poesia sortzeko ohikoa dudan estiloa.

Eta zer diozu lanaren izenburuaz?

Lotura zuzena du negu sasoiraren hurbiltzen ari den egilearen adinarekin. Latinezko *solstitium* hitzak "eguzkiaren geldialdia" esan nahi du; neguaren hasiera adierazten duen une magikoa da eta, maila espiritualean, introspektiorako eta prestaketarako garaia ere bada.

Zenbat olerki bildu dituzu bertan?

Guztira 64 poema daude, hiru kapitulutan banatuta. Sarreran bat ageri da; lehen kapituluan 22 bildu ditut, bigarrenean 28 eta hirugarrenean 12. Guztia biribiltzeko, beste olerki bat dago amaieran.

Nola egituratu duzu liburua? Alegia, hiru kapitulu nagusi aipatu dituzu. Horietako bakoitzean zer aurkituko du irakurleak?

Clinker izeneko lehen kapituluan poema intimoak bildu ditut, sekretu puntu bat izan dezaketena. Bigarren atalak *Estancia* du izenburu eta bertan esperientziari, itxaropenari eta denboraren joan-etorriari buruzko idatziak aurkezten ditut. *Tronio* izeneko hirugarren pasartearen berriz, berdintasunaren aldeko emakumeen borroka islatzen duten olerkiak agertzen dira.

“Azken finean, niretzat poesia eguneroko lana da, etengabea, exigentea. Poema liburu berri bat prestatzen ari naiz dagoeneko”

Libururako propio idatzitako poema berriak dira? Edo lehendik idatzitako olerkiekin osatu duzu bilduma?
Libururako propio egindako testuak dira.

Nori zuzenduta dago argitalpena?

Ulertzeko edo barneratzeko zailak izan daitezkeen poema batzuk badira tartean, baina uste dut poesia zaleek eta adituek ez ezik, beste irakurle askok ere izango dutela liburuaz gozatzeko aukera; niri hala iruditzen zait behintzat eta hala izatea nahi nuke.

Nola deskribatuko zenuke zure poesia? Nolakoak dira liburuan bildutako poemak?

Badira poema batzuk kutsu intimista dutenak, baita metafisikoa ere agian. Baina *Solsticio de invierno* liburuan bildutako poema gehienak esperientziatik, memoriatik eta intentzioz sortutakoak dira. Interpretatzeko errazak eta iradokitzaileak izatea espero dut.

Kultur Elkartearen aurkezte berri duzu 'Solsticio de invierno'. Non eros daiteke liburua? Salgai dago jadanik?

Bai. Hemendik aurrera salgai izango da liburu-dendetan eta Interneteko plataformetan, hala nola Amazonen, El Corte Inglesen eta La Casa del Libron.

Jakin badakigu literatura oso presente dagoela zure bizitzan. Laugarren lana plazaratu izana da horren erakusgarri. Zenbateko garrantzia ematen diozu?

Pasioz bizi izan dut beti literatura eta bereziki poesia; niretzat pasio bat da, eta bilaketa prozesu bat ere bai. Oroimena dudanetik, idazten, irakurtzen, ikasten... ibili naiz. Salvador Paniker filosofoaren pentsamendu batek ederki laburbiltzen du sentitzen dudana: "Arrazoia soberan dugu eta magia falta zaigu". Itzalak leuntzeko eta gure bizitzako galderei eta zalantza etikoei erantzunak aurkitzeko behar dugun magia, hain zuzen ere.

Baduzu proiektu berririk esku artean?

Poesiarekin jarraituko dut, ezin baitiot uko egin. Ahalgin handia eskatzen duen arren, eta askotan ilusioa galtzen badut ere, benetan gogoko dut. Azken finean, niretzat poesia eguneroko lana da, etengabea, exigentea. Poema liburu berri bat prestatzen ari naiz dagoeneko.



Espirografoa

Arg.: JOSE LUIS APERRIBAI

Itsasoa, ur azpian ikus daitekeen
animalia zoragarrienetako bat da.
Gure kostaldean horrelako asko
daude. Segundo bat baino gutxiagoan
harrapatzen duzu bizitza osorako
oroitzapen ezin hobea.

Bitor Garitaonandia "sentsazio onekin" bueltatu da lehiara



Sendatzeko prozesua arrakastaz amaitu ostean, apirilaren 15etik 19era Lisboan (Portugal) jokaturako Caparica Surf Fest txapelketan parte hartzeko aukera izan du Bitor Garitaonandia. Surflari debarra aldakatik operatu zuten abenduan eta aurreikuspen guztiak gainditu ditu Challenger Series zirkuituko azken probara iritsita.

Bere mailarik onena ematen saiatu bazen ere, ezin izan zuen 32 surflari onenen kanporaketa gainditu eta sailkapen orokorreko 17. postuan amaitu zuen proba. "Gutxigatik (0,24 puntu) ez nuen lortu hurrengo faserako txartela", azaldu du Garitaonandia.

Europako sailkapenean 30. postuan amaitu du denboraldia eta, hortaz, ezingo du mundu mailako hurrengo zirkuituan parte hartu. Aitortu duenez, "ez dut helburu nagusia lortu, baina pozik nago. Lesioa osatzeko denbora behar nuen eta niretzat lorpen handia izan da lau hilabeteen onenen artean lehiatu ahal izatea".

Uztailean abiatuko da denboraldi berria eta ordurako mailarik onena berreskuratzea du helburu. Izan ere, Europako surflari onenen artean egon nahi du, "berriz ere Challenger Series txapelketarako sailkatzeko".

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan ariko dira Euskal Jolaseko palistak



Gipuzkoako Pilota Federazioak antolatutako Herriarteko Txapelketak 44 herritako 460 pilotari elkartuko ditu aurten eta tartean izango dira Debako Euskal Jolas Kirol Elkarteko palistak. Aurreko urteetan legez, pilotariak lau modalitateetan ariko dira txapelaren bila: esku-pilota, gomazko paleta, larruzko paleta eta zesta-punta. Zehaztu dutenez, herriko ordezkariak bi modalitateetan ariko dira; larruzko paletan eta gomazko paletan.

Maiatzaren 4an hasiko dira eskuzko eta gomazko paletako lehiak. Azken horretan hamalau herri ariko dira norgehiagokan eta, azaldu dutenez, Debako taldeak final-laurdenetatik ekingo dio txapelketari, Tolosaren aurka. Joanekeo partida maiatzaren 18ko asteburuan izango da eta itzulerakoa astebete beranduago jokatu dute.

Larruzko paletako txapelketa, berriz, maiatzaren 11ko asteburuan abiatuko da. Debarekin batera, beste bost herri parte hartuko dute. Debako taldeak Azpeitiari egingo dio aurre final-laurdenetan: joanekeo partida maiatzaren 11ko asteburuan izango da eta itzulerakoa maiatzaren 18koan.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 beheak - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k
kutxabank

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Egun osoko egitarauarekin ospatuko dute Erromeria Eguna maiatzaren 3an



Urteroko ohiturari eutsiz, Itziarko Auzo Udalak eta Andutz dantza taldeak prest dute maiatzeko lehenengo larunbatean, hilaren 3an, ospatuko den Erromeria Egunaren bueltako egitaraua. Aurtengoa hamabosgarren edizioa izango da eta antolatzaileek festaz gozatzeragonbidatu dituzte herritarrak.

Ohiko osagaiekin dator hitzordua, baina berritasun batzuk ere iragarri dituzte. Nabarmenena erromerien kokaleku aldaketa izango da. Azaldu dutenez, "arratsaldeko erromeria plazara bueltatuko da aurten. Iaz, obrak zirela eta, ekimena frontoian egin behar izan genuen, baina oraingoa jatorrizko lekura itzuliko da". Bestalde, Bikain jatetxean egin beharrean, Burugorri Ostatuan egingo dute erromeri-afaria.

Bestelako berritasunik ere izango da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, hain zuzen, Andutz dantza taldeko



kideek "kalejira berezia" egiteko asmoa dute; herriguneko leku ezberdinetan ariko dira.

Egitaraua 11:00etan hasiko da, kalejira eta dantzekin. 12:30ean, mokadua eskainiko dute plazan eta Itziarko eta Vianako dantzarien eta herriko trikiti eskolako ikasleen saioaz gozatzeko aukera izango da bertan. Kalejira egingo dute 13:00etan, trikitilariak, dultzaineroek eta fanfarreak alaituta, eta, ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izango da frontoian; otordurako txartelak apirilaren 30era arte egongo dira salgai Burugorri Ostatuan eta Gure Dendan.

Erromeria izango da 18:00etan plazan eta, eguna biribiltzeko, trikitilariak erromeri-afaria egingo dute 21:30ean Burugorri Ostatuan (txartelak bertan izango dira eskuragai, 25 euroan). Urtero bezala, trikitilariak alaituko dute afalosteko giroa.



Zabalik dago Ostolaza Sarietara hautagaitzak aurkezteko epea

Debako Kultur Elkarteak Ostolaza Sarien bigarren ediziorako deialdia egin berri du, "udalerriko kultur jarduera aberasten laguntzen duten herritarren edo erakundeen lana aitortzeko eta aintzatesteko" helburuz.

Epaimahaiak lau sari banatuko ditu aurten ere (*Sortzaileak*, *Dinamikak*, *Ezinbestekoak* eta *Hazia Saria*), eta horietarako hautagaiak

edozein herritarrek proposatu ahal izango ditu. Proposamenak maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira, Kultur Elkartean bertan nahiz Internet bidez (labur.eus/ostolazasariak estekako formularioa beteta).

Sari banaketa ekitaldia ekainaren 14an izango da, Kultur Elkar-teak Bazkidearen Eguna ospatzeko antolatu duen egitarauaren baitan.

Apirila / Maiatza

API. 30 (ASTEAZKENA)

ODOL ATERAKETA
16:30 Luzaro ikastetxea.

IRAKURKETA KLUBA
19:00 'Hetero'. Liburutegia.

MAI. 1-3

ASKIZURA IRTEERA
Zuhatza-Kolore Anitzekin.

MAI. 3 (LARUNBATA)

ERROMERIA EGUNA
Informazioa 27. orrialdean.

MERKATU TXIKIA
09:00 Estalitako pasealekua.

LASTUR FAMILIAN
11:00 San Nikolas Plaza.
Erreserbak: geoparkea.eus

MAI. 4 (IGANDEA)

IRTEERA GIDATUA
11:30 Debatik Zumaiara
itsasontziz (geoparkea.eus).

ZINEMA
19:00 'El conclave'. Kultur
Elkartea.

MAI. 5 (ASTELEHENA)

**PENTSIODUNEN
MOBILIZAZIOA**
12:00 Foruen Plaza.

MAI. 6 (ASTEARTEA)

SARI BANAKETA
10:30 Zuhatzak eta Mendatak
antolatutako literatur
lehiaketa. Institutua.

MAI. 8 (OSTEGUNA)

HITZALDIA
16:00 'Bizitzako trebetasunak'.
(Treba nerabeak). Gaztelekua.

MAI. 8-14-23-29

BASO BETE ZIENTZIA
Informazioa 17. orrialdean.

MAI. 9 (OSTIRALA)

ZINEGOAK PROIEKZIOA
19:00 Kultur Elkarteak.

MAI. 10 (LARUNBATA)

EUSKARALDIKO AZOKA
11:00 Plaza Zaharra, Foruen
Plaza eta Simon Berasaluze.

MAI. 11 (IGANDEA)

**HERRI URRATSERA
AUTOBUSA**
08:45 Paseo estalia.
09:00 Itziarko biribilgunea.

ZINEMA
19:00 'El consentimiento'.
Kultur Elkarteak.

MAI. 15 (OSTEGUNA)

BISITA GIDATUA
09:30 Nautilus museoa. Portua.

MAI. 15-25

EUSKARALDIA
Informazioa 10. orrialdean.

MAI. 16-17-18

DEBARREN EGUNA
Egitarau berezia izango da.

MAI. 18 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA
07:45 Sunbilla-Mendaur-
Sunbilla. Paseo estalia.

MAI. 19 (ASTELEHENA)

**PENTSIODUNEN
MOBILIZAZIOA**
12:00 Foruen Plaza.

MAI. 21 (ASTEAZKENA)

IRAKURKETA KLUBA
19:00 'Azkenaz beste'.
Liburutegia.

MAI. 22 (OSTEGUNA)

HITZALDIA
16:00 'Bizitzako trebetasunak'.
(Treba nerabeak). Gaztelekua.

MAI. 24 (LARUNBATA)

ERREZITALDI LIRIKOA
19:00 Ispiluen gela.

MAI. 25 (IGANDEA)

ZINEMA
19:00 'La joven y el mar'.
Kultur Elkarteak.

MAI. 27 (ASTEARTEA)

IRAKURKETA KLUBA
19:00 'Betty'. Liburutegia.

FERRIGORA BANAKETA

Deba (Aldats frontoia)
Maiatzak 7 (11:00-13:00 /
17:00-19:00).

Itziar (Kalebarreneko lokala)
Maiatzak 9 (16:00-20:00) eta
maiatzak 10 (10:00-13:00).

ERAKUSKETAK

Juanma Oizartabal 'Txalintxo'
'Forma organikoak'. Maiatza-
ren 4ra arte. Agirre jauregia.

Haitz-Haundi
Maiatzaren 23tik ekainaren
1era. Udaletxea.

OSTOLAZASARIAK

Proposamenak aurkezteko:
labur.eus/ostolazasariak
estekan edo Kultur Elkar-
tean bertan.



ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)

ZALDUEGI
Apirilak 30 eta maiatzak 1, 16, 17, 18, 26, 27, 28, 29.

BURGOA
Maiatzak 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15, 30, 31.

Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)
BURGOA Maiatzak 3, 10, 31.
ZALDUEGI Maiatzak 17, 24.

OHIKO ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera
(09:00-13:45 / 16:30-19:30)

Guardia egunetako igandeak
eta jaiegunak (11:00-13:00)

Itziarko botikina (09:00-12:30)

BURGOA 667 33 88 90
ZALDUEGI 669 26 22 01

Eskelak



Hildakoen eskelak, urteurrenak eta oroigarriak argitaratzen dira atal honetan. Horieta bat jarri nahi izanez gero, 632 04 33 22 telefonora deitu edo idatzi berriketan@berriketan.eus helbidera.

Eskela guztiak berriketan.eus/eskelak estekan egongo dira ikusgai.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

943 741 327 (24 orduz) / 635 756 295 / 629 635 203

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Eriete zentruetan zerbitzuak.

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Itziarko Botikina	687 75 67 21	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Debako Udala	943 19 28 40	Gurutze Gorria	943 19 10 32	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Mendata BHI	943 89 92 65
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Deba Musikal	943 19 20 16
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Turismo bulegoa	943 19 24 52	Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Mankomunitatea	943 70 07 99	KZgunea	943 02 36 29
Kiroldegia	943 19 22 62	Haurreskola	943 19 20 81	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55	Euskotren	944 33 33 33
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54	Lurraldebus	900 30 03 40



Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
 20820 Deba, Gipuzkoa
info@debaklinika.com
 T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
 Kirurgia
 Implanteak
 Ortodontzia tradizionala
 Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
 Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.





**PILARIK GABEKO
 AUDIFONOAK**
 PROBATU
 HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
 20820 Deba
 Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12

HIZKI-ZOPA: HAMARRARRAIN MOTA

B	E	R	D	E	L	A	E	R	A	E
A	R	I	A	T	N	U	R	U	L	R
H	E	O	N	T	P	L	G	E	B	M
E	O	A	X	E	O	I	G	I	A	U
G	P	O	E	R	S	A	U	K	L	X
A	A	K	R	I	T	K	J	L	E	A
L	E	R	B	Z	A	Z	K	E	A	R
U	T	E	A	E	I	E	A	N	E	R
Z	I	T	Z	A	P	O	A	D	I	A
E	R	R	E	B	O	I	L	O	A	N
A	U	R	U	B	A	R	R	U	L	I



BERDELA | ANTJOA | URRABURUA | ZAPOA
ERREBOILLOA | MUXARRA | BISIGUA
LEGATZA | EZKAILUA | HEGALUZEA

AURRE-MATRIKULA

 MAIATZAK 5etik 23ra



MERKATARITZA



ADMINISTRazio
ETA
KUDEAKETA



JARDUERA
FISIKOAK
ETA
KIROLAK



INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK



IZENA EMAN
 943 89 92 11
www.uni.eus



Otaola Hiribidea, 29
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
izakaritza@uni.eus
www.uni.eus
[@uni.eus](https://www.facebook.com/uni.eus)  



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZEN GALIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

 IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA

Berriketan 2025eko apirila



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ez. Eibar

943 20 72 17 | 660 42 28 08

amaia@esnaolaodontologia.com

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behe,
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

Uztailleko ikastaroak:

First / Advanced
DBHko eta Batxilergoko
errefortzua

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206

info@english-square.net



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



**KANTAUURIKO
ANTXOAK ETA
BOKARTAK**



**HEGALUZE
ETA
HEGALABURRA**



**ESKUZ
EGINDAKO
KROKETAK**



**BESTELAKO
GOURMET
PRODUKTUAK**



Zuzeneko salmentaren ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00-15:00



Online salmenta: www.tiendayurrita.com



sarean edota dendan erosteagatik

%20ko deskontua

Zuzeneko salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan, maiatzaren 15a arte erabilgarri (kupoia hau aurkeztuz)

Online salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #UDABERRI20



(+34) 627 38 46 45



pedidos@yurritagroup.com



Casa Mauleon Etxea